LARRABETZU
UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Esp. Zkia. OZ-2021-22
EE.- 2021-00058

070/2021 DEKRETU ZENBAKIA:
Larrabetzuko udaletxean, 2021ko otsailaren 16an.

OINARRIA: 2020ko urriaren 28an, Larrabetzuko Udalak udalerriko eraikinetako tximiniak garbitzeko udal diru-laguntza emateko zuzentarauak jasotzen dauan ordenantzearen behin betiko onespena egin zuen.

OINARRIA: Behin betiko izaerarekin onartutako 2021ko ekitaldi ekonomikorako udal aurrekontuaren 150-48001 zenbakiko aurrekontu-partidea dago 500,00 euroko zenbatekoagaz laguntza-programa horretarako.

Erantsitako dokumentazinoa aztertuta, eta Diru-laguntzei buruzko zemendiaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikuluan eta udalerrio eraikinetako tximiniak garbitzeko diru-laguntza emateko zuzentarauak jasotzen dauan ordenantzearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAU EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Udalerriko eraikinetako tximiniak garbitzeko diru-laguntza programaren 2021eko deialdia onartzea, aurrekontuaren 150-48001 aurrekontu-partidan ezarritakoaren arabera, 500,00 euroko kredituagaz. Deialdia Dekretu honetan I eranskin bezala agertzen da.

BIGARRENA.- Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalerriaren web-orrialdean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Osoko Bilkureak egingo dauan hurrengo bileran ebazpen honen barri emongo da.

Iñigo Gaztelu Bilbao
Alkatea

Nire aurrean,
Idazkaria

LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

I ERANSKINA
LARRABETZUKO UDALERRIKO ERAIKINETAKO TXIMINIAK GARBITZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

1. Artikulua. Arrazoiak

1. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluak udal guztiei esleitzen dien eskumenetako bat suteen prebentzioa da.

2. Larrabetzuko Udalak, prebentzioaren barruan, funtsezkotzat jotzen du etxebizitzetako tximiniak garbitzea. Beraz, udalerrian dauden etxebizitzen jabeei tximinia horiek aldizka garbitzera bultzatzeko, egokitzat jotzen da diru-laguntzen lerro bat sortzea, horrek eragiten dizkien gastuak arintzeko.

3. Ondorioz, oinarri hauen helburua da tximiniak garbitzearen kostuari dagokion diru-laguntza eskatzeko baldintzak ezartzea, eta, hala badagokio, aipatutako tximinien garbiketarren kostuari dagokion diru-laguntza ematea.

2. Artikulua. Helburua

Oinarri hauen helburua da elementu hori duten eta erabilera legeztatuta duten udalerriko eraikinetako tximinien garbiketan aldizkako mantentze-lanak sustatzea, bai eta Larrabetzuko Udalak, bere eskumen-eremuan.

ANEXO I
BASES REGULADORAS DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONS PARA LA REALIZACIÓN DE LA LIMPIEZA DE CHIMENEAS DE LOS EDIFICIOS SITUADOS EN EL TERMINO MUNICIPAL DE LARRABETZU

Artículo 1. Fundamentación

1. Una de las competencias que atribuye el artículo 17 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, a todos los ayuntamientos es la prevención de incendios.

2. El Ayuntamiento de Larrabetzu, considera fundamental dentro de la prevención, la limpieza de las chimeneas de las viviendas. Así que con el objeto de incentivar a los propietarios de viviendas sitas en el municipio a realizar una limpieza periódica de las mismas, se considera pertinente la creación de una línea de subvenciones destinada a paliar los gastos que ello les suponga.

3. En consecuencia, las presentes Bases van dirigidas a establecer las condiciones conforme a las cuales procederá la solicitud y, en su caso, otorgamiento de la correspondiente subvención sobre el costo de la citada limpieza de chimeneas.

Articulo 2. Objeto y finalidad

Estas Bases tienen por objeto fomentar un mantenimiento periódico en la limpieza de las chimeneas de los edificios sitos en el municipio que cuenten con este elemento y cuyo uso esté legalizado, así como regular el procedimiento de concesión por parte del Ayuntamiento de Larrabetzu.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Urtean, titular bakoitzeko erakin bakarra lagunduko da diruz.

Erakin bakoitzaren tximiniaren garbiketa bi urtean behin bakarrik lagunduko da diruz.

3. Artikulua. Araudi juridikoa

1. Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzek, oinarri hauek betetzeaz gain, ondorengo araudia bete beharko dute:

- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Araudia onartzen duena.
- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

2. Ematen diren diru-laguntzak lehiarik gabeko lehia-erregimenean emango dira, deialdi ireki baten bidez, aurrekontu-kreditua agortu arte. Diru-laguntzak printzipio hauen arabera emango dira:

- Publizitatea, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

Solo se subvencionará un edificio por titular al año.

Solo se subvencionará una limpieza de la chimenea de un edificio cada dos años.

Articulo 3. Regimen juridiko

1. Las subvenciones que se concedan en la presente convocatoria se regirán, además de por las presentes bases, por lo dispuesto en la siguiente normativa:

- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.
- Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

2. Las subvenciones que se concedan lo serán en régimen de concurrencia no competitiva, mediante una convocatoria abierta hasta agotar el crédito presupuestario. Las subvenciones se otorgarán con arreglo a los principios de:
- Publicidad, transparencia, objetividad, igualdad y no discriminación.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

- Ezarritako helburuak eraginkortasunez betetzea.
- Efizientzia baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean.

3. Jarduera, programa, proiektu edo egoera berezi baterako dirulaguntza eskaera aurkeztu izanak berak, Oinarria hauek ezagutu eta onartzea dakar. Baita LARRABETZUko Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra ere, eta baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorra ere. Era berean, mota honetako dirulaguntzei ezartzen zaizkien arau guztiak onartzea ere badakar, bai zuzenak, bai menpekoak.

4. Artikulua. Aurrekontu zuzkidura

2021 ekitaldiko aurrekontu orokorrean 150-48001 aurrekontu-partida dago dirulaguntza honi aurre egiteko 500,00 euroko kredituarekin.

5. Artikulua. Onuradunak

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzaren onuradun izan ahalko dira Larrabetzuko Udalerrian dauden eta erabilera legeztatuta duten eraikinen jabe diren edo eraikin horien gozamena duten pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta, tximinia garbitu ondoren, dagokion eskaera egiten badute.

6. Artikulua. Eskatzaileak bete beharreko baldintzak.

1. Pertsona fisikoak zein juridikoak: Larrabetzu udalerrian erabilera legeztatua duen eraikin baten jabe edo gozamendun izan beharko dute, eta tximiniaren garbiketa ekitaldi

- Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados.
- Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.

3. La mera presentación de una solicitud de subvención, implica el conocimiento y aceptación de estas Bases, de la Ordenanza General reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Larrabetzu, y de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como cuantas normas sean de aplicación a este tipo de subvenciones, tanto de carácter directo como subsidiario.

Articulo 4. Dotación presupuestaria

En el ejercicio 2021 existe la partida presupuestaria 150-48001 con un crédito de 500,00 euros para la presente subvención.

Articulo 5. Personas beneficiarias

Podrán ser beneficiarios de la subvención prevista en estas bases las personas físicas o jurídicas, propietarias o usufructuarias de edificios cuyo uso este legalizado, situados en el término municipal de Larrabetzu, que habiendo realizado la correspondiente limpieza de la chimenea formalicen la correspondiente solicitud.

Artículo 6. Requisitos de las personas solicitantes

1. Tanto las personas físicas como las jurídicas: deberán ser propietarios o usufructuarios de un edificio con uso legalizado en el municipio de Larrabetzu y

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

bakoitzaren deialdia egin eta aurreko urtean egin beharko dute.

haber realizado la limpieza de la chimenea dentro del año inmediatamente anterior a la convocatoria de cada ejercicio.

2. Udalarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta izatea, eta harekin bestelako zorrik ez izatea deialdia behin betiko ebatzi arte.

2. Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias con el ayuntamiento, y no tener otro tipo de deuda con el mismo hasta la resolución definitiva de la convocatoria que se realice.

3. Arrazoi eta eraikin beragatik bestelako dirulaguntzarik jaso ez izana, dirulaguntza eskatu duen urtearen aurreko urtean.

3. Que no haya sido subvencionado por el mismo concepto y edificio en el año inmediatamente anterior.

### 7. Artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

### Artículo 7. Gastos subvencionables

Enpresa baimendu batek bere jabetzako eraikineko tximinia garbitzearen ondorioz sortutako gastuak.

Los derivados de la realización de la limpieza de la chimenea del edificio de su propiedad por empresa autorizada.

### 8. Artikulua. Eskaerak

### Artículo 8. Solicitudes

1. Eskaerak I eranskinaren eredu ofizialaren arabera aurkeztuko dira, letra larriz beteta, modu argi eta irakurgarrian.

1. Las solicitudes se presentarán en el modelo oficial del anexo I y deberán ser cumplimentadas en letras mayúsculas de forma clara y legible.

2. Aurkezteko epea: deialdian jasotakoa.

2. Plazo de presentación: la fecha que conste en la convocatoria.

3. Aurkezteko modua:

- Aurrez aurre: udal bulegoetan, 8:00etatik 14:00etarako ordutegiaren barruan.
- Telematikoki: www.larrabetzu.eus webguneko egoitza elektronikoaren bidez, horretarako gaituta dagoenean.

3. Forma de presentación:

- Presencialmente en las oficinas municipales en horario de 9 a 13:30 horas.
- Telemáticamente a través de la Sede electrónica de la página web: www.Larrabetzu.eus cuando ésta esté habilitada.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

4. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Dirulaguntza-eskaera normalizatua, behar bezala beteta, I eranskinaren ereduaren arabera.
- Garbiketa-lanak egin dituen tximinia-garbiketan espezializatutako enpresak emandako fakturaren kopia; horrekin batera, baita faktura ordaindu izanaren egiaztagiria ere.

5. Eskatzaileek, eskaera aurkeztuta, honakoa onartzen dute: Udalaren zerga-bilketa zerbitzuekin datuak gurutzatzea, honakoa jakiteko: eskatzaileak, udalarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta dituen ala ez.

4. Documentación que se debe presentar junto a la solicitud de concesión de subvención:

- Solicitud de subvención normalizada, debidamente cumplimentada, según el modelo del anexo I.
- Copia de la factura expedida por la empresa especialista en limpiezas de chimeneas, que ha realizado la limpieza, así como comprobante del pago de la misma.

5. Las personas solicitantes con la presentación de la solicitud aceptan: Que se crucen los datos con los servicios de recaudación del ayuntamiento a los efectos de conocer si están al corriente en el pago de todas las deudas.

9. Artikulua.

1. Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean betetzea, eta adieraziko zaio, epe hori igarota ez baditu aurkeztu, eskaera, aldez aurretik dagokion ebazpena eginda, bertan behera uzten dela.

2. Dirulaguntzak emateko erabakia Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartuko du, Osoko Bilkuran aztertu beharreko Gaietarako Batzorde Informatiboaren proposamena aztertu ondoren.

Artículo 9. Estudio de las solicitudes

1. Si la documentación presentada estuviera incompleta se requerirá a la persona solicitante para su cumplimentación en el plazo de 10 días, con la indicación de que transcurrido el mismo sin presentarlos se le tendrá por desistida de su solicitud, previa resolución.

2. La concesión de las subvenciones se realizará por el Pleno de la Corporación, a propuesta de la Comisión Informativa de los Asuntos a tratar en Pleno.

10. Artikulua. Diru laguntzen zenbatekoa

Artículo 10.Cuantía de la subvención

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

1. Diru laguntza gehienez ere diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70ekoa izango da, eta 50 euroko gehienezko kopurua izango du.

2. Gehieneko muga ez da aplikatuko, baldin eta dagozkion esleipenak egin ondoren aurrekontu-partida agortzen ez bada. Kasu horretan, gainerako zenbatekoa modu proportzionalean banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskabideen artean, betiere kostuaren ehuneko 90 gainditu gabe.

3. Ordea, gordetako kreditua ez bada aurkeztutako eskaera guztiei aurre egiteko nahikoa, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan gutxituko da, eskaera guztiei aurre egiteko.

11. Artikulua. Diru laguntzaren beteragarritasuna

Diru laguntza hauek bateragarriak dira, eskatzaileak helburu bererako eskatzen duen beste edozeinekin. Hala ere, udal honek emandako diru laguntza ezingo da inoiz izan, bera bakarrik, edo beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako bestelako diru laguntzekin batera, jarduera gauzatzen duen pertsonak egindako jardueraren kostua baino handiagoa.

12. Artikulua. Diru laguntzen ordainketa

Dirulaguntzak epe bakarrean ordainduko dira, behin ebazpena onartu ondoren, eta aurrekontu-ekitaldia bukatu baino lehen.

13. Artikulua. Diru laguntzen kontrola eta justifikazioa

1. La subvención alcanzará hasta el 70 por ciento del presupuesto de la actuación protegible con un tope máximo de 50 euros.

2. El tope máximo no será aplicable en el supuesto de que realizadas las adjudicaciones que procedan, no se agote la partida presupuestaria. En este caso se repartirá, de manera proporcional, la cantidad restante entre las solicitudes que cumplan todos los requisitos, siempre sin superar el 90 por ciento del coste.

3. Por el contrario, si el crédito consignado fuera insuficiente para atender a todas las solicitudes presentadas, el importe de la subvención se reducirá proporcionalmente para poder atenderlas todas.

Artículo 11. Compatibilidad de las subvenciones.

La concesión de estas subvenciones será compatible con cualquier otra que para el mismo fin reciba la persona solicitante. No obstante, en ningún caso la subvención que se conceda por este ayuntamiento podrá superar en concurrencia con otras subvenciones concedidas el coste de la limpieza.

Artículo 12. Abono de las subvenciones

El abono de la subvención se realizará en un único plazo una vez adoptada la resolución y antes de finalizar el ejercicio presupuestario.

Artículo 13. Control y justificación de la subvención

LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30 artikuluaren 7. atalean ezarritakoarekin bat eginez, eskola garraiorako dirulaguntzak zuritzeko, eskatzaileak edo tutoreak, dirulaguntzak eman aurretik, gastua egiaztatu beharko du, eta ez du bestelako zuriketa-agiririk aurkeztu beharko, beti ere deialdian ezarritako baldintzak bete beharko dituelarik.

2. Hala ere, onuradunak kontzeptu bererako bestelako diru-laguntza edo laguntzaren bat jasotzen badu, udalari jakinarazi beharko dio, jasotzen dituen unean bertan.

3. Laguntzak jasotzen dituztenei balizko diru-itzulketak, zigorrak edo erantzukizunak ezartzeko erregimen arautzailea Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak zehaztutakoa da, eta baita Larrabetzuko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ere.

## 14. Artikulua. Zigor erregimena

Arau-hauste eta zigor administratiboen kasuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 52 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jokatuko da, eta udalaren dirulaguntza eta laguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzaren 14. artikuluaren arabera ere bai; ordenantza horretako 15. artikuluan ezarritakoaren arabera jarriko dira zigorrak.

1. De conformidad con lo dispuesto en el apartado 7 del artículo 30 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, la concesión esta subvención no requerirá otra justificación que la presentación de la factura junto a la solicitud y el cumplimiento de los requisitos para obtenerla.

2. No obstante, la persona beneficiaria está obligada a poner en conocimiento del ayuntamiento la obtención de otras subvenciones o ayudas que obtenga para este concepto en el momento en que se produzcan.

3. El régimen regulador de los posibles reintegros, sanciones y responsabilidades aplicable a los perceptores de las ayudas será el establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en la Ordenanza Reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Larrabetzu.

## Artículo 14. Régimen de infracciones y sanciones

En materia de infracciones y sanciones administrativas, se estará a lo dispuesto en los artículos 52 y siguientes de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en el artículo 14 de la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones y ayudas aprobada por el ayuntamiento y serán sancionadas conforme se establece en el artículo 15 de la misma ordenanza.